

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Elkarte eta fundazioentzako laguntza deialdia, beraien gizarte lokalak birgaitzen eta egokitzen laguntzeko eta beraien gizarte jarduerak eta/edo programak garatzeko beharrezko guztiaz hornitzen laguntzeko. 2024ko ekitaldia

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak honela ulertzen ditu esku hartze sozialeko jarduerak: pertsona, familia eta talde guztien autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatzera eta babestera bideratutakoak, sustapen, prebentzio, babes eta laguntza funtzioak garatuz, batez ere prestazio eta zerbitzu pertsonalen eta harremanen bidez.

Lege beraren arabera (73. artikulutik 75.era), euskal administrazio publikoek irabazteko asmorik gabeko gizarte ekimeneko erakundeek garatutako jarduerak sustatu eta/edo babestu ahal izango dituzte, eta bereziki kontuan hartuko dira honako jarduerak hauek:

- Pertsonen arreta emateko prestazio eta zerbitzu berriak abian jartzearekin lotutako jarduerak berritzaileak eta esperimentalak;
- Elkarte sareari laguntzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko jarduerak;
- Plangintza hobetzera, zerbitzuak antolatzean eta arreta ematean kalitatea bermatzera eta hobetzera eta praktika profesionalak hobetzera bideratutako ikerketa, garapen eta berrikuntza jarduerak.

Azkenik, 41. artikuluan ezartzen duenez, foru organoek eskumena izango dute, bakoitzak bere lurraldean, honako eginkizun hauek betetzeko: "Gizarte ekintzako hirugarren sektorea bultzatu eta sustatzea, eta horrez gain, honako hauek sustatzea: herritarren parte-hartzea, asoziazionismoa eta boluntariora eta erabiltzaileek eta profesionalak gizarte zerbitzuen kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzea, ahal den neurrian emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze orekatua izaten saiatuta".

Bestalde, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legeak (EHSSL) honako hau aitortzen du: «Gizarte-ekimeneko eta esku-hartze sozialeko erakundeak euskal gizartearen funtsezko aktibo bat dira, eta haien ekarpena ezinbestekoa da gizarte bidezkoa eta solidarioa, berdintasunezkoa eta kohesionatua, demokratikoa eta parte-hartzailea eraikitzeke, bai eta gizarte premiei behar bezala erantzuteke ere – integrala, hurbilekoa, pertsonalizatua, parte-hartzailea –, sektoreen arteko lankidetzatik abiatuta eta pertsona, familia, kolektibo edo komunitate hartzaileen parte-hartzearekin».

Arabako Foru Aldundiak, bere erakunde autonomoaren bidez (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea), Arabako lurralde eremuan oinarritzen du bere eskumena, bai eta, modu subsidiarioan, hala eskatzen duten 20.000 biztanletik beherako udalerrietan ere.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak, 2024ko martxoaren 7ko bilkuran, laguntzen deialdi hau onestea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen deialdia arautuko duten

OINARRIAK

Lehenengoa. Deialdiaren xedea eta araudi aplikagarria

Deialdiaren xedea da 2024an zehar, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak elkarteei edo fundazioei eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea, beraien gizarte lokalak birgaitzen eta egokitzen laguntzeko eta beraien gizarte jarduerak eta/edo programak garatzeko beharrezko guztiaz hornitzen laguntzeko, baldin jarduera eta programa horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jardun esparrukoak badira.

Deialdi honen xede diren laguntzak emateko, kontuan edukiko da ea betetzen diren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 8/2011 Foru Dekretuan eta indarrean dagoen araudian ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak.

Bigarrena. Deialdiaren aurrekontua

Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2023ko aurrekontu 2024ra luzatuaren partida honen kredituei egotziko zaizkie: 81201. G/231811/78100811 "Elkarteetarako laguntzak. Zentroen ekipamendua", zeinak 30.000,00 euro baititu esleituak, gehienez ere.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak

3.1. Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke deialdi honen xedearekin bat datozen jarduerak egiten dituzten irabazteko asmorik gabeko elkarte edo fundazioak, betiere deialdi honetan, gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 8/2011 Foru Dekretuan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

3.2. Ezin daitezke izan dirulaguntza hauen onuradun:

a) Estatuaren edo autonomia erkidegoaren menpe dauden erakundeak, zentroak edo zerbitzuak, bai eta aurrezki kutxen edo irabazteko asmoa duten erakundearen menpe daudenak ere.

b) Nagusiki edo gehienbat Arabako Foru Aldundiko beste sail edo zuzendaritza batzuekin edo beste erakunde publiko batzuekin lotutako beste esparru edo kolektibo batzuetara mugatzen diren jarduera eta/edo programak dituzten erakundeak.

c) Beren jarduera Vitoria-Gasteizko udalerrira mugatzen duten elkarte edo erakundeak.

d) Eskaera aurkezteko garaian aurreko ekitaldietan erreklamatu zitzaizkien dirulaguntzak itzultzeko eginbeharra bete ez dutenak.

e) Eskatutako laguntzarekin egin beharreko jarduerak Arabako Lurralde Historikoaren barruan egiten ez dituzten entitate edo erakundeak.

f) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, hezkuntza erakundeak, sozietate zibilak, sindikatuak edo merkataritza eta profesionalen elkarteak, oro har, bai eta horietan sartuta edo horiei atxikita dauden talde eta elkarteak ere, baldin eta beren plazen ehuneko 75 baino gehiago erakunde jakin bateko kideentzat, enplegatuentzat edo senitartekoentzat gordeta badauzkate edo kide izateko aukera mugatzen badute.

g) Eskaera aurkezteko garaian Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan erroldatuta ez dauden elkarteak edo fundazioak. Erregistro hori araututa dago Diputatuen Kontseiluaren Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzen duen otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretuan.

h) Kideak onartzeko prozeduran edo beren jardunbidean sexuan oinarrituta diskriminatzen duten elkarteak edo fundazioak, eta sexuan oinarritutako diskriminazioa egin dutelako administrazio bidean edo zigor bidean zehapena izan duten elkarteak edo fundazioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuari jarraituz debeku hori ezarrita dutenak ere.

i) Erakunde publikoak barruan dituzten elkarteak edo fundazioak.

j) Arabako Lurralde Historikoan egoitza ez duten elkarteak edo fundazioak.

Laugarrena. Laguntzen xedea eta diruz lagundu daitezkeen jardunak

4.1. Arabako Foru Aldundiak gizarte zerbitzuen arloan ezarritako helburuak betetzeko xedez, dirulaguntzak jarduera hauetan erabiliko dira:

- Gizarte egoitzak edo lokalak birgaitzea, eraberritzea, hobetzea edo egokitzea.
- Gizarte egoitzetarako edo lokaletarako zein gizarte jarduerak edo programak egiteko beharrezko ekipamendu eta altzariak erostea edo konpontzea.

4.2. Hauek lagundu ahalko dira diruz:

- Gizarte lokalak eraberritzea eta beste egokitzapen batzuk, erakundearen funtzionamendu egokirako.
- Lokal sozialetan oinarrizko irizitako ekipamenduak: aulkiak, mahaiak, armairuak, antzerako altzariak eta bestelako ekipamenduak sail honen jardueran lehentasuna duten talde zehatzak artatzeko. Bulegoko altzariari dagokienez, oro har, lanpostu baterako behar dena finantzatzeko da erakunde bakoitzeko.

Landa herrietako adinekoen kolektiboei arreta emateko diruz lagun daitezkeen banakako oinarrizko ekipamenduen gehieneko kopurua 65 urtetik gorako pertsonen kopuruaren araberrakoa izango da. Eustatek adieraziko du kopuru hori "biztanleria Arabako biztanleria entitateka, sexuaren, adin taldeen eta naziotasunaren arabera" izeneko azken txostenean https://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/ti_poblacion-por-entidades-de-poblacion-de-alava-segun-sexo-grupos-de-edad-y-nacionalidad-01012022/tbl0011436_e.html.

- Ikus-entzunezko eta komunikazioko ekipamendua (telefonoa, bozgorailu adimendunak, bideokonferentzia sistemak, telebista, DVD eta antzeko ekipamendua). Oro har, telefono mugikor bat finantzatzeko da lanpostu baterako erakunde bakoitzeko.

• Informatika ekipamendua (ordenagailu finkoa edo eramangarria; inprimagailua, monitorea, segurtasun sistemak, oinarrizko bulego edo kontabilitate softwarea eta antzeko ekipamendua). Dirulaguntzak eman daitezke, baldintza hauetako bi behintzat betez gero:

— Gizarte Ongizaterako Foru Erakundetik dirulaguntza jaso izana jarduera-programetarako, azken 5 ekitaldi amaituetako bitan gutxienez, dirulaguntzetarako deialdietan nahiz hitzarmenen bidez.

— Elkarteen bazkide kopurua 100etik gorakoa bada, eta fundazioen patroikopurua, ordea, 3tik gorakoa.

— Artatutako pertsonak 100 baino gehiago izatea (lehentasuna duten taldeetako pertsonak, ez biztanleak oro har).

Oro har, lanpostu baterako erakunde bakoitzak behar duena finantzatu ahal izango da.

Gainera, aurreko baldintza berberak betez gero, tableta bat finantzatu ahal izango zaie erakundeei, baldin eta erakundeko langileek azken bi urteetan gutxienez GOFEk diruz lagundutako hiru jarduera egin badituzte erakundearen herritik edo erakundeak egoitza duen herritik kanpo.

Salbuespenez, behin balioespen teknikoa egin ondoren, tresna informatiko baterako dirulaguntza ere eman ahal izango zaie aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten elkarteei, baldin eta ezaugarri espezifikoak badituzte badituzte jarduera bolumenari eta erabiltzaile edota bazkide kopuruari dagokionez.

- Proiektzio eta erreproduktzio ekipamendua (fotokopiagailua, bideo proiektorea, soinu erreproduktzitailea eta antzeko ekipamendua). Dirulaguntzak eman daitezke, baldintza hauetako bi behintzat betez gero:

— Elkarteen bazkide kopurua 100etik gorakoa bada, eta fundazioen patroikopurua, ordea, 3tik gorakoa.

– Artatutako pertsonak 300 baino gehiago izatea (lehenetasuna duten taldeetako pertsonak, ez biztanleak oro har).

– Erakundearen xede nagusietako bat Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jardueran lehenetasuna duten taldeen prestakuntza izatea.

- Gizarte jardueretarako behar diren bestelako ekipamendu edo altzariak.

Kanpoko karpene eta haiek handitzeko elementuei dagokienez, probintziako sentsibilizazio kanpainak egiten dituzten erakundeentzat izango da dirulaguntza, edo horiek ezinbesteko dituzten diruz laguntzeko moduko jardueretarako.

4.3. Kanpoan utziko dira:

• Proiektuak egiteak, profesionalen soldatek eta elkargoen eskubide edo zigiluek sorrarazitako gastuak.

• Kirol lokalak, erlijio lokalak, museoak, txokoak, osasun zentroak, haur eta gazteentzako aisialdi zentroak eta jarduera terapeutikorako erabiltzen diren lokalak egokitzea/eraberritzea edo hornitzea.

• Lanak edo erosketak, kultura edo kirol izaerako lokaletan edo kolektiboei zuzendutako lokaletan eginak, baldin eta Arabako Foru Aldundiko beste sail edo zuzendaritza batzuen edo beste erakunde publiko batzuen laguntza deialdien bidez finantzatu daitezkeen jarduerak eta/edo mantentze-lanak egiten badituzte.

• Kontzejuen etxe edo aretoak, udalen erabilera publikoko zentro sozialak edo udalek kudeatutako beste leku publiko batzuk birgaitu, egokitu edo hornitzearen ondoriozko gastuak.

• Sukaldeak edo bestelako etxetresna elektriko/ekipamendu industrialak edo profesionalak.

• Aldundiaren eskumeneko egoitzetako, eguneko zentroetako, lanerako zentroetako edo beste programa edo zerbitzu batzuetako ekipamenduak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin lankidetzaz hitzarmena edo kontratua eginda kudeatzen direnak.

• Foru eskumeneko zerbitzuak edo programak emateko lokalak egokitzea/eraberritzea, zerbitzu edo programa horiek aldundiaren titulartasunekoak direnean.

• Foru eskumeneko zerbitzuak edo programak emateko lokalak egokitzea/eraberritzea, zerbitzu edo programa horiek aldundiaren titulartasunekoak ez direnean baina finantzatzeko partida badaukate lankidetzaz hitzarmenean.

• Fatxadak egokitzea/berritzea (auzo komunitateen gastuak, beheko lokaletako fatxadako kristalen gastuak eta ateen/leihoen egokitze edo aldatze lanen gastuak izan ezik).

• Zeharkako zergak, berreskuratutako edo konpentsatu ahal badira.

4.4. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira eta, hortaz, deialdi honen bidez finantzatu ahal izango dira, diruz lagundutako exekuzioaren edo proiektuaren izaerari inolako zalantzarik gabe atxiki, behar-beharrezkoak izan eta 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean egiten direnak.

4.5. Dirulaguntzarako onartzen den aurrekontuaren ehuneko 100 azpikontratatu daiteke, baldin eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren, 27. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira. 27.7.d) artikuluan xedatutakoaren araberrako loturarik badago, baimena eskatu beharko da azpikontratatzeko, organo emaileari zuzendutako idazki bidez. Deialdi hau argitaratu aurretik azpikontratatu bada, onartu egingo da baimen eskaera laguntza eskaerarekin batera aurkeztea. Horrek, ordea, ez du zehazten erantzuna halakoa edo bestelakoa izango den.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

5.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, laguntzaren gastuak eta diru sarrerak justifikatzeko agiriak telematikoki aurkeztu beharko dira nahitaez, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-a-asociaciones-y-fundaciones-para-contribuir-a-la-rehabilitacion-y-ajustamiento-de-sus-locales-sociales-asi-como-al-equipamiento-necesario-para-el-desarrollo-de-sus-actividades-y-o-programas-de-caracter-social>).

Eskaerekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eskaeretan jasotako informazioa eta dokumentazioa benetakoa dela adierazteko.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizartegintza Arloak argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie, deialdi honen esparruan, dirulaguntzaren bat eskatu nahi duten erakundeei. Kontsultak bide hauek erabiliz egin daitezke:

San Prudentzio kalea, 30, sotoa (aldez aurreko hitzordua hartuta).

Telefonoa: 945 151015.

Edo posta elektronikoko helbide hauetan:

tec2.prog.sect@araba.eus.

tec1.prog.sect@araba.eus.

5.2. Eskabideekin batera, oinarri hauetan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira.

5.3. Erakunde eskatzaileek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean aurkez ditzakete laguntza eskaera hori eta erantsitako dokumentazioa. Halaber, laguntza eskaeraren ondoriozko jarduketan eta prozedura guztian zehar, erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak 6.1 artikuluan xedatzen duen bezalaxe.

Seigarrena. Aurkezteko epea

6.1. Laguntza eskaerak aurkezteko, 15 egun baliodun egongo dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6.2. Epe barruan aurkeztutako eskaerak ebatzi ondoren eta aurrekontuetan horretarako nahikoa kreditu badago, salbuespen gisa, 6.1 apartatuan adierazitako epetik kanpo ere onartuko dira eskaerak, baina betiere 2024ko azaroaren 30a baino lehen aurkezten badira eta egiaztatzen bada eskatutako laguntzen beharrak ezarritako epe arruntaren azken eguna igaro ondoren sortu direla, indarreko araudiaren arabera.

Zazpigarrena. Aurkeztu beharreko agiriak

Bosgarren oinarrian adierazitako eskaerarekin batera, beste dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

7.1. Agiri komunak.

7.1.1. I. eranskina: eskaera orria, deialdi honi atxikitako agiriaren arabera onespina eman diezaioten, erakundearen ordezkariak edo ahalmen nahikoa duenak izenpetua, datu hauek jasotzen dituenak, besteak beste:

- Elkartearen edo fundazioaren izena eta datuak. Nortzuk diren zuzendaritza batzordeko edo patronatuko kideak, eta zenbat pertsona dituen bazkide, boluntario, eta abar, betiere sexuaren arabera xehakaturik. Erakundearen legezko eratze data.

- Dirulaguntza eskaeraren xede den lokalaren identifikazioa.

- Helburu bera betetzea xede duten beste sarrera edo dirulaguntza batzuk.

- Hala badagokio, azpikontratatzeko baimen eskaera, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak bere 27. artikuluko 7.d) artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

7.1.2. Memoria teknikoa, eskatzen den ekipamenduaren edo egin nahi diren obren beharrari buruzkoa, honako hauek zehazten dituena:

- Eskatzen den obraren deskribapena.
- Horren beharraren justifikazioa.
- Eskatutakoa entitatearen gizarte xedeei eta jarduerari egokitzen zaielako adierazpena.

7.1.3. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak: Dirulaguntzak eskatzen dituzten erakundeek egunean ordainduta izan beharko dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Egoitza fiskala Araban duten elkarten kasuan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioski eskatuko dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari erakunde eskatzailea Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren egunean dagoelako egiaztagiria, bai eta Foru Ogasunari ere eskatzailea zerga betebeharraren egunean dagoelako egiaztagiria ere, behar adina aldiz, salbu eta, dirulaguntzaren zenbatekoa 800,00 euro baino gutxiago izateagatik, hori egiaztatetik salbuetsita bada, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera. Erakunde eskatzailea aurreko agiriak direla eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egindako eskaeraren aurka agertzen bada, edo zerga egoitza Arabako Lurralde Historikotik kanpo duen erakunde bat bada, erakunde horrek aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera, eta aurkeztu ere eskatzen zaion beste bider.

7.2. Berariazko agiriak.

7.2.1. Gizarte lokalak birgaitu eta egokitzeko:

- Beharrezkoa izanez gero, proiektu teknikoa.
- Egingo diren obrak egiaztatzeko aurrekontua:

1. Obra edo egokitzapenak gauzatzeko aurrekontua 1.500,00 euro baino gutxiago bada (BEZik gabe), aurrekontu bat aurkeztu beharko da.

2. Obra edo egokitzapenak gauzatzeko aurrekontua 1.500,00 euro edo gehiago bada (BEZik gabe), bi aurrekontu aurkeztu beharko dira.

3. Obra edo egokitzapenak gauzatzeko aurrekontua 40.000 euro edo gehiago bada (BEZik gabe), hiru aurrekontu aurkeztu beharko dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen Foru Arauak (11/2016 Foru Araua) 29.3 artikuluan aurreikusten duena aplikatuz.

Eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz aukeratuko da aurkeztutako eskaintzen artean; egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean, aukeratutako eskaintza diru aldetik hobereana ez denean.

- Erakunde eskatzailearen jabetzako higiezinetan egin beharreko obretarako: jabetzaren erregistroaren ziurtagiria edo ondasunen inbentarioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, ondasun higiezinaren jabetza eta, halakorik izanez gero, kargak egiaztatzen dituena. Ziurtagiri hori lehenago eman bada, eta haren baldintzak aldatu ez badira, nahikoa izango da idatziz adieraztea noiz entregatu den eta ziurtagirian jasotako datuak ez direla aldatu. (Eskaerarekin batera erreferentziako ereduak aurkeztu da).

- Lagatako edo errentan emandako higiezinetan egin beharreko obren kasuan: lagapena edo alokairua egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da, bai eta eta jabearen baimena ere, hura zein baldintzatan egin den adierazten duena. Ziurtagiri hori lehenago aurkeztu bada, eta harrezkero aldaketarik gertatu ez bada, nahikoa izango da horren data zehatza idatziz adieraztea, eta datu horiek ez direla aldatu azaltzea ziurtagirian. (Eskaerarekin batera erreferentziako ereduak aurkeztu da).

• Udalak egingo diren obretarako eman duen baimenaren ziurtagiria; jasotako dirulaguntzen justifikazioarekin batera aurkeztu daiteke hori. Dagokion udalak lizentzia hori beharrezkoa ez dela iritziz gero, salbuespena adierazten duen udal-ziurtagiria.

7.2.2. Ekipamendua edo altzariak erosteko edo konpontzeko:

1. Ekipamendu erosketa edo konponketarako aurrekontua 1.000,00 euro baino gutxiago bada (BEZik gabe), enpresa hornitzaile baten aurrekontua aurkeztu beharko da.

2. Ekipamendu erosketa edo konponketarako aurrekontua 1.000,00 euro edo gehiago bada (BEZik gabe), bi enpresa hornitzailearen aurrekontuak aurkeztu beharko dira.

3. Ekipamendu erosketa edo konponketarako aurrekontua 15.000,00 euro edo gehiago bada (BEZik gabe), hiru enpresa hornitzailearen aurrekontuak aurkeztu beharko dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen Foru Arauak (11/2016 Foru Araua) 29.3 artikuluan aurreikusten duena aplikatuz.

Aurkeztutako eskaintzak azaldu beharko dira. Horietako bat aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

Gastua dirulaguntza eskatu baino lehenago egin bada, erakunde eskatzailea aipatutako aurrekontuak aurkeztetik salbuetsita egongo da, eta kasu horretan egindako gastuaren faktura aurkeztuko da.

7.3. BEZ zergaren salbuespena: 15.5 oinarriari dagokionez, BEZaren salbuespena egiaztatuko da zerga administrazio eskudunak eman beharreko salbuespen egiaztagirari bidez, baldin eta aldeztatik dagoeneko aurkeztu ez bada. Bestela, salbuespena erantzukizunpeko adierazpen bidez ere egiaztatu ahalko da (Eskaera orriko I. eranskinean jasota), betiere honakoa adieraziz: erakunde eskatzaileak ez duela irabazi asmorik, lortutako etekinak salbuetsitako jarduerak aurrera eramateko erabiltzen direla eta lehendakari, elkarteburu edo ordezkariaren karguak doakoak eta ordainik gabekoak direla. Eskaera aurkezteak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak baimena ematen dio adierazpen hori egiaztatzeko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan. Erakunde eskatzailea aurreko agiriak direla-eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera.

Zortzigarrena. Balioespen irizpideak

Hona hemen eskaerak balioesteko irizpideak:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jarduera eremuan sartzen diren gizarte izaerako jarduerak egiteko komenigarritzat, atzeragarritzat edo alferrekotzat jotzen diren gauzatze edota eskuratzeak. Gehienez 30 puntu:

Komenigarri direla uste diren obrak edo erosketak. Kalifikazio hori izango du, zerbitzuaren, lokalaren, ekipamenduaren... egoera txarra delako edo nahikoa ez delako, obra edo erosketa hori egitea ezinbestekoa bada	30 puntu
Atzeratzeko modukoak direla uste diren obrak edo erosketak. Kalifikazio hori izango du zerbitzuaren, lokalaren, ekipamenduaren... egoera hala moduzkoa denean, hau da, ez denean beharrezkoa berehala konpondu edo erostea	15 puntu
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jarduera eremuan sartzen diren gizarte izaerako jarduerak egiteko alferrekotzat jotzen diren gauzatze edota eskuratzeak. Kalifikazio hori jasoko du zerbitzuaren, lokalaren, ekipamenduaren... egoera egokia dela uste denean, hau da, aproposa denean edo jadanik nahikoa ekipamendu dagoenean, edo eskatutako ekipamendua GOFren jarduera eremuan sartzen diren gizarte jarduerak egiteko beharrekotzat jotzen ez denean	0 puntu

Diru laguntzea jaso ahal izateko, jarduerak gutxienez 15 puntu lortu behar ditu apartatu honetan.

b) Eskatutako obra edo erosketaren egokitasuna, premia eta koherentzia erakundeak ematen dituen zerbitzu edo programen helburuekin: gehienez, 30 puntu:

Obra edo erosketa guztiz loturik badago erakundeak ematen dituen zerbitzu edo programekin: 30 puntu	30 puntu
Obra edo erosketa osagarria bada erakundeak ematen dituen zerbitzu edo programen garapenarekin	15 puntu
Obra edo erosketak ez badu loturirik erakundeak ematen dituen zerbitzu edo programekin	1 puntu

c) Diruz lagundutako azken ekitaldiko ekipamendu-deialdian emandako dirulaguntza osoaren justifikazioa. Gehienez 20 puntu. Dirulaguntza jaso den azken ekitaldian aurkeztutako frogagiriak balioetsiko dira, haren ondoren emandako azken zenbatekoa kontuan edukiz:

Dirulaguntza jaso den azken ekitaldian emandako amaierako zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 90 edo gehiago bada, edo dirulaguntzarik jaso ez bada, edo justifikatutako arrazoiengatik ezin izan bada egin diruz lagundutako jarduera, eta dirulaguntzari idatziz uko egin bazaio ekitaldi horretako abenduaren 15a baino lehen	20 puntu
Dirulaguntza jaso den azken ekitaldian emandako amaierako zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 75 edo gehiago eta ehuneko 90 baino gutxiago bada	10 puntu
Baldin eta azkeneko ekitaldi diruz lagunduan emandako amaierako zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 75etik beherakoa bada	1 puntu

d) Elkartearen edo fundazioaren gizarte eragina. 20 puntu gehienez. Erakundearen esku hartzea GOFEn lehentasunezko arreta pertsona kopuru handi batengana heltzea balioetsiko da:

Artatutako pertsonak 80 baino gehiago badira	20 puntu
Artatuak 60 eta 80 pertsona bitartean badira	15 puntu
Artatuak 30 eta 59 pertsona bitartean badira	10 puntu
Artatuak 10 eta 29 pertsona bitartean badira	5 puntu
Artatuak 10 pertsona baino gutxiago badira	0 puntu

Bederatzigarrena. Ukatzeko arrazoiak

a) Deialdi honetako edo Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 8/2011 Foru Dekretuko edozein oinarri ez betetzea.

b) Hamabigarren oinarriak ezarritakoari jarraikiz, proiektuak gutxienez 51 puntu ez lortzea.

c) Eskatutako kontzeptua eta laugarren oinarriaren lehen idatz zatian ezarritako xedea bat ez etortzea.

d) Deialditik kanpo utzitako kontzeptua da, laugarren oinarriko hirugarren idatz zatian ezarritakoari jarraikiz.

e) Aurreko ekitaldietan dirulaguntza jaso duen ekipamendua da eta/edo ez da igaro kontzeptu bererako beste dirulaguntza bat lortzeko gutxienezko epea, hamaikagarren oinarriaren arabera.

f) Zortzigarren oinarriko a balioespen irizpidearen balioespena ez da iritsi 15 puntura.

Hamargarrena. Lehentasun multzoak eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuak erakunde bakoitzeko

1 lehentasun multzoa:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK	GEHIENKO ZENBATEKOA, ENTITATEKO
Arrazoi hauetakoren batengatik egin behar diren eraberritze-egokitze lanak edo ekipamendua: lapurretak, ezbeharrak lokaletan edo ekipamenduetan, bizilagun erkidegoetan egindako ez-ohiko eraberritzeak eta/edo erakundearen funtzionamendurako ezohiko obrak edo egokitze lanak	Egokitzapenak/eraberritzeak: 3.000,00 euro Ekipamendua: 1.500,00 euro

2 lehentasun multzoa:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK	GEHIENEO ZENBATEKOA, ENTITATEKO
Altzariak eta/edo oinarrizko beste ekipamendu batzuk	1.500,00 euro

3 lehentasun multzoa:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK	GEHIENEO ZENBATEKOA, ENTITATEKO
Informatika eta erreprodukzio ekipamenduak	1.000,00 euro

4 lehentasun multzoa:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK	GEHIENEO ZENBATEKOA, ENTITATEKO
Egokitze-eraberritzeak, horietarako eskaera 2.000,00 euro baino gehiagokoa ez bada	2.000,00 euro

5 lehentasun multzoa:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK	GEHIENEO ZENBATEKOA, ENTITATEKO
Ikus-entzunezko ekipamenduak, proiektzioarako eta/edo komunikaziokoak	765,00 euro

6 lehentasun multzoa:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK	GEHIENEO ZENBATEKOA, ENTITATEKO
Aurreko 2, 3 edo 5 puntuan jasotzen ez diren altzariak edo ekipamenduak	1.000,00 euro

7 lehentasun multzoa:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK	GEHIENEO ZENBATEKOA, ENTITATEKO
Egokitze-eraberritzeak, horietarako eskaera 2.000,00 euro baino gehiago bada	3.000,00 euro

Hamaikagarrena. Kontzeptu bakoitzeko mugak eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuak

A) Dirulaguntzen mugak kontzeptu bakoitzean:

a.1) Egokitzapenak/eraberritzeak:

Egokitzapen-eraberritzeetarako diruz lagun daitezkeen mugak jarduketa motaren eta horiek sartzen diren lehentasun taldearen arabera definituko dira.

Lokal partekatuen kasuan, erakunde eskatzaileak lokal horri ematen dion erabileraren zati proportzionala finantzatu ahal izango da.

Lurralde federazio batek partekatzen dituen lokalei dagokienez, parte hartzen duten erakunde kopuruaren arabera zati proportzionala finantzatu ahal izango da (ehuneko 50 bi lurralde erakunde badira, 1/3 hiru erakunde badira, eta horrela hurrenez hurren).

Lehendik diruz lagundutako egokitzapen baterako dirulaguntza jaso ahal izateko gutxieneko epea 10 deialdikoa izango da (dirulaguntza jaso zuen deialdia barne).

a.2) Ekipamenduak:

Ekipo eta altzarietarako diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoak modulu eredu hauetan zehaztuta agertuko dira:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN MODULU EREDUAK	MUGAK
Bulegoa (mahaia+tiradera altzaria+besaulkia+2 eserleku)	807,00
Artxibo tiraderaduna	198,00
Bulego mahaia tiraderarik gabe	326,00
Bulego mahaia tiraderekin	477,00
Bilera mahaia	354,00
Kanpoko mahai tolesgarria	40,00
Kanpoko mahai tolesgarria > 180 cm	62,00
Kanpoko banku tolesgarria > 180 cm	51,00
Erabilera anitzeko mahaia	184,00
Bulegoko besaulkia	165,00
Bulego eserlekua eta/edo eserleku tapizatua	83,00
Egur/erretxinazko aulki tolesgarria edo metagarria	30,00
Aulki ergonomikoak	227,00
Oin-azpikoa	33,00
Armairu garaia	340,00
Armairu baxua	294,00
Kakotegia	66,00
Bulegoko zakarrontzia	38,00
Tabureteak	30,00
Bionboa	124,00
Telebista	412,00
Bideoa, DVDa edo bideoa-DVDa	52,00
Ordenagailu mahai gainekoa/eramangarria	670,00
CPU	336,00
Monitorea	113,00
Barruko disko gogorra	52,00
Kanpoko disko gogorra	66,00
Haririk gabeko teklatura	25,00
Software Office	116,00
Software Windows	117,00
Tableta	227,00
Ordenagailurako mahaia	124,00
Imprimatzailea	185,00
Haririk gabeko telefono finkoa	31,00
Bozgorailu adimenduna	40,00
Terminal mugikorra	113,00
Eskanerra	171,00
Koadernatzailea	255,00
Papelografoa	128,00
Arbela	99,00
Erakusketa taula edo kristalezko beira-arasa	155,00
Plastifikagailua	42,00
Prestazio handiko paper birringailua (200 erabiltzaile baino gehiagorentzat)	217,00
Paper birringailua (200 erabiltzailearentzat gehienez)	48,00
Bideo proiektagailua	413,00
Proiektzioko pantaila tripodea	84,00

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN MODULU EREDUAK	MUGAK
Oinarria eta zorroa dituen flybannerra	147,00
Aurkezpenetarako roll-upa	113,00
Bideokonferentzia sistema (bozgorailua+kamera+osagarriak)	725,00
web kamera	24,00
Hezetasun kengailua	124,00
Hepa iragazkiko aire garbigailua (78 m ² arte)	305,00
CO2-aren neurgailua	83,00
Aurreko termometroa	31,00
Erradiadore elektrikoa	60,00
Haizegailuak	52,00
6 elementuko armairua	413,00
Ontzi garbigailua	412,00
Sukaldea (plaka + labea)	516,00
Zentro sozialerako kafe makina	387,00
Erakundearen egoitzarako kapsula bidezko kafe makina	66,00
Hozkailua	458,00
Izozkailua	315,00
Karpa tolesgarria	155,00
Kanpoko karpak handitzeko babesgarria Erakundearen egoitzarako kapsula bidezko kafe makina	108,00
Bitrozeramika	258,00
Mikrouhinak	68,00
Baxera (6x3 pieza)	51,00

Zernahi erakundek, deialdi honen harira, gai bererako eta ezaugarri berekin aurkeztutako gutxieneko zenbatekoa izango da aurreko zerrendan ez zehaztutako ekipamenduak diruz laguntzeko muga.

BEZ Balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa diruz lagungarria izango da erakundeak zenbateko hori berreskuratzerik ez badu.

Bulegoko, informatikako eta telefono mugikorreko ekipamenduei dagokienez, oro har, lanpostu baterako behar dena finantzatuko da erakunde bakoitzeko.

Lehendik diruz lagundutako ekipamendu baterako dirulaguntza jaso ahal izateko gutxieneko epea hau izango da (dirulaguntza jaso zuen deialdia barne):

- Ekipo informatikoetarako: 7 deialdi.
- Gainerako ekipamenduetarako: 10 deialdi.

Arrazoitutako kasu berezietan, epe horiek murriz daitezke.

B) Diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuak:

Ekipamendu, egokitze-eraberritzeetarako diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontua hamargarren oinarriko lehentasun-taldeetan adierazitako gehieneko zenbatekoek eta diruz lagun daitezkeen jarduketa bakoitzean ezarritako mugek zehaztuko dute.

Hala ere, erakunde publikoen landa-eremuko lokalak egokitzeko/eraberritzeko, eta lokal horien erabilera orokorrerako ekipamenduetarako, aipatutako zenbatekoen eta mugen ehuneko 80 izango da diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuak.

Laguntzen eraginkortasuna bermatzearen, eta jarduerak dirulaguntza jaso ahal izateko, jarduera bakoitzaren gehieneko aurrekontu diruz lagundu daitezkeenak, gutxienez, 20,00 eurokoa izan behar du.

Hamabigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Zortzigarren oinarri arauko irizpideak ezartzetik lortutako puntu guztiak batuz gero, lortuko den zenbatekoari dirulaguntzetarako gehieneko ehunekoa esleituko zaio, ondoko taula honen arabera:

PUNTUAK	DIRULAGUNTZAREN GEHIENKO EHUNEKOA
50 puntu edo gutxiago	Ehuneko 0
51 eta 59 puntu bitartean	Ehuneko 60
60 eta 69 puntu bitartean	Ehuneko 70
70 eta 79 puntu bitartean	Ehuneko 80
80 eta 89 puntu bitartean	Ehuneko 90
89 puntu baino gehiago	Ehuneko 100

Esandako ehunekoek, hamaikagarren oinarriaren arabera diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuei aplikatuta, zehaztuko dute dirulaguntzaren azkeneko zenbatekoa.

Erabilgarri dagoen aurrekontua agortzen duen azken multzoari dagozkion esleipenak egiteko, heinean banatuko da eskaera dagoen geldikina, kalkulatu den hasierako dirulaguntzaren arabera. Hortaz, ez dira diruz lagungarriak izango aipatu den azken multzoaren ondorengo lehentasun multzoei lotutako jarduerak.

Hamahirugarrena. Deialdiaren instrukzioa eta ebazpena

13.1. Epe barruan eta dagokion eran aurkeztutako eskaerei dagokienez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatuko du ea eskaera horiek laguntza jasotzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituzten. Horrela ez bada, eskaera aurkeztu duenak hamar egun baliodun izango ditu eskatzen diren datuak eta agiriak aurkezteko. Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, eskaerari uko egiten diola esan nahiko du (eta horretarako ebazpena emango da alde aurretik), bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoarekin.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak txostenak eskaeraren diezazkieke egoki deritzen erakundeei, eskatutako dirulaguntzei buruz zein eskaera egin duen erakundeari buruz; orobat, eskaera egin duen erakundeari espedientea osatzeko eta emandako datuak egiaztatzeko beharrezko izan litezkeen datuak, agiriak edo argibideak ere eskaeraren diezazkieke.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko Zuzendariordearen Teknikoa da prozedura agindu eta bideratzeko eskumena duen organoa eta hark txosten teknikoak egingo ditu, eta bertan dirulaguntzaren xede diren jarduerak zehaztuko dituzten egokitzeko zuzendariordearen helburuei jasoko du.

13.2. Zuzendariordearen Teknikoak, arloko programen koordinatzaileak eta gizarte zerbitzuen zuzendaritzak eskaerak balioesteko batzordea osatuko dute.

Arloko teknikari adituek egindako txostenak aztertu ondoren, eta behin kreditu erabilgarria zein den kontuan hartu eta gero, aipatutako batzordeak ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek dirulaguntza emango zaien erakunde eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa jaso beharko ditu, baita ukatzeko proposatzen diren eskaerak eta horretarako arrazoiak ere, eta, orobat, esleitu ez diren kasuak, dela atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo erantzun ez zaien eskaeretan gerora sortu den ezintasun materialarengatik.

13.3 Ez da entzunaldiko izapiderik egingo, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko ebazpena hartzeko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 82.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

13.4 Ebazpenak behar bezala arrazoituta egon beharko du eta dirulaguntza bidezkoa den edo ez adieraziko du, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko zuzendari-kudeatzaileak emango du, hala agintzen baitu Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko arautegiak 25. artikuluan. Horretarako, lau hilabete izango dira gehienez, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Era berean, ebazpenak zehaztuko du zein den aintzat hartutako kontzeptu bakoitzeko diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoa. Eskatzaileei ebazpenaren berri emango zaie, eta horren aurka aurkez ditzaketen errekurtsioak adieraziko dira.

Ebazpena hartzeko epea igaro eta esanbidezko ebazpenik ez bada hartu, eskaera ezetsizat emango da, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen Foru Arauak (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa) 23.5 artikuluan aurreikusten duenaren arabera. Hala ere, horrek ez du kenduko ebazpena hartzeko legezko eginbeharra.

13.5. Deialdi honetako laguntzak jasotzeko ezarri diren betekizun guztiak betetzeak ez dakar, berez eta besterik gabe, laguntza eskuratzeko eskubidea.

Deialdi baten babespean dirulaguntza emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jarduketetarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

13.6. Ebazpenaren aurka errekurtsioa jarri ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 121 – 126 bitarteko artikuluetan xedatzen duenaren arabera.

13.7. Honako deialdi hau ebatzi eta gero, dirulaguntza jasotako erakundeek, salbuespenezko izaeraz, esleipen ebazpenari buruzko aldaketak proposatu ahal izango dituzte, diruz lagundutako exekuzioaren garapena aldarazten edo zailtzen duten inguruabarrak agertzen badira; nolahi ere, inguruabar horiek ezin dute ekarri emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea.

Horretarako, erakunde eskatzaileak idatziz arrazoitu beharko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrean helburuak aldatzeko edo desbideratzeko eskaera, aipatutako inguruabarrak gertatzen diren unean, betiere 2024ko azaroaren 30a baino lehen.

Desbideratze edo helburu aldaketa hori deialdi honetan aplikatutako dirulaguntza irizpideen arabera onartu ahal izango da ebazpen baten bidez. Aurkeztu diren aldaketa eskaerak aztertuko dituzte teknikariek, eta Balioespen Batzordeak, txosten teknikoa oinarri, emandako dirulaguntzak aldatzeko proposamena egingo du. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileak ebatziko ditu aldaketa horiek.

Hamalagarrena. Ordaintzeko modua

Dirulaguntza ordaintzeko, diruz lagundu nahi izan den proiektua edo erosketa egin dela justifikatu beharko da alde zuzenetik.

Ordainketa egiteko, beharrezkoa izango da Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko bere zerga betebeharrak bete dituela egiaztatzea.

Hamabosgarrena. Frogagiriak

15.1. Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek laguntzarako froga-agiriak aurkeztu behar dituzte 2024ko abenduaren 31ra arteko epean.

15.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, laguntzaren gastuak eta diru sarrerak justifikatzeko agiriak telematikoki aurkeztu beharko dira nahitaez, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-a-asociaciones-y-fundaciones-para-contribuir-a-la-rehabilitacion-y-acondicionamiento-de-sus-locales-sociales-asi-como-al-equipamiento-necesario-para-el-desarrollo-de-sus-actividades-y-o-programas-de-caracter-social>).

Dokumentazioarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eskaeretan jasotako informazioa eta dokumentazioa benetakoa dela adierazteko.

Justifikazio horretan, gutxienez dokumentazio hau erantsiko da:

– Erakundearen laburpen-ziurtagiria, erakundearen legezko ordezkariak, hau jasoko duena: diruz lagundutako exekuzio bakoitzaren gastuak eta diru sarrerak, egindako erosketak eta/edo obrak erakunde horren bulegoetan daudela kokatuta eta horniketa egin duten enpresei edo pertsoneri horiek ordaindu izana. Gainera, onura publikokotzat deklaratu diren entitateek ziurtatu beharko dute eskurapen eta/edo obra horiek dagoeneko erakunde horren inbentarioan sartu direla, eta erregistraturik daudela han.

– Diruz lagundutako kontzeptuen fakturak.

– 300,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da. Ez da onartuko abenduaren 31 baino geroago egindako ordainketarik. Ordainketa justifikatzeko, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

- Enpresa hornitzaileak sinatutako hartze agiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

- Banku laburpena.

- Laburpen elektronikoa edo transferentzia telematikoa, ordainketa ziurtatzen duena.

- Ordainagiria, enpresa jaulkitzailearen zigilu eta sinaduraduna, ordaindu zeneko data zehazten duena, edo erosketak ticket jatorrizkoa, hura eskuratuz zenbatekoa ordaindu dela adieraziko duena (saltoki motakoa).

- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak eta bankuaren zigilua ageri dituen

– Hala ere, iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzko urriaren 29ko 7/2012 Legeak (BOE, 2012ko urriaren 30ekoa) 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, ezingo dira eskudirutan ordaindu indarreko araudian zehaztutako balio bereko edo handiagoko edo atzerriko dirutan haren kontrabaliao duten eragiketak.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

15.3. Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki sinatutako beste edozein dokumentu aurkeztuz gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuen konfiantza zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestatzaileak>).

15.4. Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen ordainagiririk ez fakturarik:

Igorlea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Gastuaren xedea.

Data.

Fakturaren zenbakia.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia eta, batez ere, PFEZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko xedapenak betetzen ez dituzten fakturak.

15.5. Gizarte izaera duten erakunde edo establezimenduek emandako zerbitzuen zioz jasandako BEZ zergaren kuotak gastu diruz lagungarri gisa aintzat hartuko dira, izaera horren aitortpena lortu duten gorabehera, betiere kasuan-kasuan aplikagarriak diren baldintzak betetzen badira (BEZ zergari buruzko Foru Arauaren 20 hiru artikulua, arau horren 20 bat artikulua zortzigarren atalak ezarritako zergaren salbuespena aplikatzearen ondorioetarako).

15.6. Erakunde onuradunak adierazitako epearen barruan justifikazioa aurkeztu eta behar diren agiri guztiak aurkeztu ez baditu, horren berri emango zaio, eta 10 eguneko epea emango zaio horiek betetzeko.

Justifikatzeko epea amaituta, erakundeak dagokion dokumentazioa aurkezten ez badu, 15 egun balioduneko epean aurkezteko eskatuko zaio. Epe hori amaitu eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, ordainketa kredituak balio gabetuko dira, eta dagokion espedientea hasiko da "konturako entrega" kontzeptuan jasotako zenbatekoak itzul daitezela.

Jakinarazpena gauzatu joko da edukira sartzen den unean. Jakinarazpena eskuragarri jartzen denetik hamar egun natural igarotzen badira eta ez bada edukira sartu, jakinarazpena ukatu egin dela ulertuko da, eta izapidea egintzat joko da prozedurari jarraituko zaio.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eman diren dirulaguntzak zertarako eta nola erabili diren egiaztatu ahal izango du, egoki irizten dion moduan, eta diruz lagundutako zerbitzu edo jardueren ezaugarriak, eraginkortasuna eta kalitatea neurtu ahal izango ditu.

Justifikatutako zenbatekoa ebazpenean adierazitakoaren arabera justifikatu beharreko zenbatekoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza dagokion proportziora murriztuko da, esleipenean ezarritako baldintzen arabera. Kasuan kasuko ebazpena emango da horretarako.

Hamaseigarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak

16.1. Dirulaguntzen erakunde onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte, deialdi honetan, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 8/2011 Foru Dekretuan eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei aplikatu beharreko araudian ezarritakoez gain:

- Dirulaguntza jasotzeko oinarritzat hartu zen jarduera egitea.
- Dirulaguntza eman duen erakundeari edo, hala badagokio, erakunde laguntzaileari, jarduera horiek egin direla egiaztatzea, bai eta dirulaguntza emateko edo dirulaguntza jasotzeko baldintzak edo betebeharrak betetzen direla ere.
- Dirulaguntza eman duen erakundearen egiaztapen jarduerak onartzea, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kontrol ekonomiko eta finantzariarako eta kudeaketarako egiten dituenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legerian eta beste erakunde eskudunen legerian xedatutako bestelako jarduerak ere.
- Edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk, Espainiakoak nahiz nazioartekoak, xede berarekin emandako dirulaguntzen edo laguntzen berri ematea erakunde emaitzaileari, edo, hala dagokionean, erakunde laguntzaileari. Orobat, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, horren berri ematea erakunde emaitzaileari.
- Deialdiaren xedearekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta propaganda jarduerak guztiak Arabako Foru Aldundiaren aurretiazko baimena beharko dute eta aldundiaren irudi korporatiboari buruz hark esandakoa beteko dute.
- Birgaitzeko laguntza eskatzen den zentroaren xedea gutxienez 10 urtez ez aldatzea eta/edo erositako ondasunen xedea gutxienez 4 urtez ez aldatzea.

16.2. Ezarritako betebeharrak horiek nahiz indarrean dagoen legerian onartutako edozein betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza azkentzea ekarriko du, eta ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli beharra.

16.3. Datu faltsuak eman edo datuak ezkutatz gero, eta dirua dirulaguntzen esleipen erabakian jasotako helburuetarako ez diren beste helburu batzuetarako erabiliz gero, bai eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenak, 13. artikuluan adierazitako kasuekin aldiberekotasuna gertatuz gero ere, emandako dirulaguntzen ordainketa agindua eten egingo da, eta hala dagokionean, ordaindutako dirulaguntzak itzuli beharko dira. Gainera, arrazoi horiengatik eska daitezkeen erantzukizunak ere bete beharko dira.

Hamazazpigarrena. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna


Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, Espainiakoa nahiz nazioartekoa dela, helburu bererako emandako beste edozein laguntza ekonomiko edo dirulaguntzarekin, baldin eta haien zenbaitakoak, bakarka edo beste dirulaguntzekin batera, ez badu gaituzten diruz lagundutako jardueraren kostua eta ez badakar diruz lagundutako jarduera estaltzeko eskatutako finantzaketa murrizterik, halakorik eskatuta egonez gero.

Hemezortzigarrena. Azken klausula

Deialdi honetako oinarriak honako arau hauek ezartzen dutenaren menpean egongo dira erabat: lehenik, Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren erakunde autonomoa den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez ematen dituzten dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak; bigarrenik, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua eta, azkenik, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 7a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p> <p> Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	<h2>Eraskina I - INPRIMAKIA</h2> <p>ELKARTE EDO FUNDAZIOEN LOKAL SOZIALAK HAIEN GIZARTE JARDUERAK EDO PROGRAMAK AURRERA ERAMATEKO HORNITU, BIRGAITU EDO EGOKITZEKO LAGUNTZAK</p>	<h1>A</h1> <h2>E.00</h2>
--	--	---------------------------------

..... jauna/andrea, NAN

.....erakundeko ordezkariak

Declara:**1º BEZ-A ORDAINTZETIK SALBUETSITA EGOTEARI EDO EZ EGOTEARI DAGOKIOEZ**
(markatu dagokiona)

- Ordezkatzen dudan erakundeak ez dauka irabazteko asmorik, eta inoiz mozkinik lortuz gero, mozkinok irabazteko asmorik gabeko jarduerak egiteko erabiltzen ditu. Halaber, lehendakari, patroik edo ordezkari kargua doakoa da eta ordaindu gabea.
- Erakundeak BEZa ordaintzetik salbuetsita egotearen ziurtagiria dauka, dagokien zerga administrazioak emana.

2º BERDINTASUNAREN ARLOKO ARAUDIA BETETZEARI DAGOKIOEZ

- Erakunde eskatzaileak ez du zuzeneko eta/edo zeharkako sexuaren ziozko diskriminazio ekintzarik egiten onarpen prozesuetan zein funtzionamenduan, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Erakunde eskatzaileak ez du zigor eta/edo administrazio zehapenik izan sexuaren ziozko diskriminazioagatik eta/edo abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretutik, Lan arloko arau hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duenetik, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerakoaren, hamalagarren xedapen gehigarritik eratorritako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau hausteengatik.

3º BENEKOTASUNA


- Adierazten dut eskabide honetan jasotako informazio eta dokumentazio guztia benetakoa dela, erakundearen esku dauden jatorrizkoekin bat datorrela, eta horiek aurkezteko konpromisoa hartzen dudala hala eskatzen denean.aportar los mismos cuando así se nos solicite.

ERAKUNDEAREN IDENTIFIKAZIOA

Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ)	Entitatea legez eratu den data
<input type="text"/>	<input type="text"/>
Eusko Jaurlaritzako Erregistroko z.k.	G. Politiken Saileko Erregistroko z.k.
<input type="text"/>	<input type="text"/>

HELBIDEA

Kalea / Pasealekua / Plaza	Herria		
<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Udalerrria	Posta k.	1. Telefonoa	Teléfono 2
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-maila	Web Orria		
<input type="text"/>	<input type="text"/>		

	Eraskina I	ELKARTE EDO FUNDAZIOEN LOKAL SOZIALAK HAIEN GIZARTE JARDUERAK EDO PROGRAMAK AURRERA ERAMATEKO HORNITU, BIRGAITU EDO EGOKITZEKO LAGUNTZAK	A	E.00
---	-------------------	--	----------	-------------

OSAERA

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
Zuzendaritza Batzordearen/Patronatuaren kide kopurua	<input type="text"/>	<input type="text"/>	0	
Bazkide kopurua	<input type="text"/>	<input type="text"/>	0	Urteko kuota <input type="text"/>
Urtean boluntario pertsonak	<input type="text"/>	<input type="text"/>	0	
Urtean soldatako pertsonak	<input type="text"/>	<input type="text"/>	0	
Urtean artatutako pertsonak	<input type="text"/>	<input type="text"/>	0	

HARREMANETARAKO PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

Izen-deiturak

Erakundearen duen kargua Telefonoa


E-maila

XEDE BERDINERAKO BIDERATUTAKO BESTE DIRU SARRERA EDO DIRULAGUNTZA BATZUK

Erakundea	<input type="text"/>		
Kontzeptua	<input type="text"/>	Eskatua	Emandakoa
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Erakundea	<input type="text"/>		
Kontzeptua	<input type="text"/>	Eskatua	Emandakoa
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Erakundea	<input type="text"/>		
Kontzeptua	<input type="text"/>	Eskatua	Emandakoa
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

..... (e)n 20 .. (e)ko aren e(a)n

(Ordezkaritzaren sinadura)

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p> <p> Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	Anexo I - LOKALETARAKO OBRAK	A
	JABETZAREN ERREGISTROKO EDO ONDASUN HIGIEZINEN ERREGISTROKO FROGAGIRIAK	E.00

(Hauetarako laguntzen eskaerak soilik: BIRGAIKUNTZA EDOTA ATONTZEA)

LAGUNTZETARAKO DEIALDIAREN OINARRIEN ARABERA, HONAKO HAUEK ENTREGATU BEHAR DIRA:

- **Entitate eskatzailearen jabetzako higiezinetan** egin beharreko obretan:
"Jabetza erregistroaren ziurtagiria edo ondasunen inbentarioaren ziurtagiria, ondasun higiezinaren jabetza egiaztatzen duena, bai eta dituen kargak ere, halakorik badago."
- **Lagatako edo errentan emandako higiezinetan** egin beharreko obretarako:
"Lagapen edo errentamendu hori egiaztatzen duten agiriak"

BALDIN ETA AGIRI HORIEK AURREKO EKITALIDETAN ENTREGATU BADIRA ETA EZ BADIRA ALDATU HAIEN BALDINTZAK, NAHIKOA IZANGO DA ZIURTAGIRI HAU AURKEZTEA:

..... jauna/andrea, NAN

..... erakundeko ordezkariak

ZIURTATU du:

1.- (**Higiezinak jabetzan**). Dirulaguntza zein lokaletarako eskatzen den, haren titularitatea ez da aldatu, eta

.....-ren izenean dago oraindik ere erregistratuta; GOFeri

.....(e)(a)n (data adierazi) entregatu zitzaion agiria.

2.- (**Lagatako edo errentan emandako higiezinak**). GOFeri (data adierazi)


emandako dokumentuan adierazitako errentamendu edo lagapen baldintza berberak dirautela.

(jabearen baimenaren kopia entregatuko da, zein baldintza ezartzen den berariaz jasota).

..... (e)n 20 .. (e)ko arene)(a)n

(Ordezkaritzaren sinadura)

4 / 4

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p> <p> Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	<h2>Eraskina I - LOTURA</h2> <p>Baimen eskaera, jarduerak edo erosketak lotutako pertsonekin edo erakundeekin azpikontratatzeko</p> <p>Solicitud de autorización para la subcontratación de actividades o adquisiciones con personas o entidades vinculadas</p>	<h1>A</h1> <h2>E.00</h2>
---	--	---------------------------------

Erakunde eskatzailearen izena • Nombre de la entidad solicitante	IFZ • CIF
<input type="text"/>	<input type="text"/>
Adierazpen egilearen izen-abizenak • Nombre y apellidos de la persona declarante	
<input type="text"/>	
Erakundearen duen ardura • En calidad de	NAN • DNI
<input type="text"/>	<input type="text"/>

ESKATZEN DIO • SOLICITA

Dirulaguntzen deialdi publikoaren 4.5 oinarriak, eta 11/2016 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenaren, (27.7.d) artikuluan xedatutakoa aplikatuz dirulaguntza emateko eskumena duen organoari, azpikontratazioa egiteko baimena ematea, lotutako pertsona/entitate honekin:

Al órgano competente para la concesión de la subvención, en aplicación de la Base 4.5. de la Convocatoria pública de ayudas, y del artículo 27.7.d) de la Norma Foral 11/2016 de Subvenciones del Territorio Histórico de Álava, autorice la subcontratación con la persona/entidad vinculada cuyos datos a continuación se relacionan:

Izen-abizenak edo sozietatearen izena • Nombre y apellidos o Razón social	IFZ/IFK • NIF / CIF
<input type="text"/>	<input type="text"/>

LOTURA MOTA • TIPO DE VINCULACIÓN

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren, 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra onartzen duenaren, 68.2 artikulua ezarritakoarekin bat etorritik

Existente de conformidad con el art. 68.2 del RD 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la ley 38/2003 General de Subvenciones

Azpikontratazioaren deskripzioa
Descripción de la subcontratación


Azpikontratazioa egiteko baimen eskaera egiten da, zenbateko hau eskuratzeko
Importe para el que se solicita autorización de subcontratación

Azpikontratatuako jardueraren ZENBATEKOA, GUZTIRA
IMPORTETOTAL de la actividad subcontratada

HITZEMATEN DU • SE COMPROMETE

Azpikontratazioa merkatuaren baldintza arrunten arabera egingo duela.
A que la subcontratación se realice de acuerdo con las condiciones normales del mercado.

Tokia eta data • Lugar y fecha	Adierazpen egilearen sinadura • Firma persona declarante
<input type="text"/>	<input type="text"/>

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p> <p> Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	<h2>Memoria Teknikoa</h2> <p>ESKAERAREN XEDE DIREN OBRA GAUZATZEEN EDO EROSKETEN PREMIARI BURUZKOA</p>	<h1>A</h1> <p>E.00</p>
--	--	------------------------

Erakundearen izena

Azalpenak idazteko leku gehiago behar baduzu: memoria teknikoaren bukaeran bi agiri zuri daude, atalen zehaztasun gehiago idazteko.

(ORRI BAT BETE BEHAR DA, ESKAERAREN XEDE DEN OBRA GAUZATZE EDO EROSKETA BAKOITZEKO)

1. EGIN NAHI DEN OBRA GAUZATZE EDO EROSKETAREN AZALPENA

2. ESKAERAREN XEDE DIREN OBRA GAUZATZEAK EDO EROSKETAK EGITEKO PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA

3. ELKARTEAREN HELBURU ETA JARDUERETARA EGOKITZEA

4. HAUTATUTAKO AURREKONTUAREN JUSTIFIKAZIOA (baldin eta aurkeztutakoen artean ekonomikoena ez bada)

 <p>ARABAKO FORU ALDUNDIA Euzko Gogapenerako Foru Aldundia Instituto Foral de Euzkadi Soziala DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA</p>	Memoria Teknikoa	ESKAERAREN XEDE DIREN OBRA GAUZATZEEN EDO EROSKETEN PREMIARI BURUZKOA	A	E.00
--	-------------------------	---	----------	------

Erakundearen izena

 <p>ARABAKO FORU ALDUNDIA Euzko Gogapenerako Foru Aldundia Instituto Foral de Estudios Sociales DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA</p>	<h2>Memoria Teknikoa</h2>	ESKAERAREN XEDE DIREN OBRA GAUZATZEEN EDO EROSKETEN PREMIARI BURUZKOA	A	E.00
--	---------------------------	---	----------	------

Erakundearen izena